

B

BARREN

“Gogoa izatea nahikoa da rugbian jokatzeko”

Sonia Arrillaga eta Olaia Blanco, rugbi jokalariak



Elgoibar

Residencial Géminis

Hobeto bizi!



**Etxebizitza
berri eta eksklusiboak**
garaie eta trastelekuekin
266.000 eurotik.



2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:
Trenbide Kalea 21, bajo • 20870 Elgoibar

943 74 80 92
www.grupogsi.com

 **Gsi**
(Ongizate eremuak)

Aurten berrikuntzaren urtea ospatzen dugula eta... nora goaz?

Aurreko astean Daniri, nire ezagun bati, belaunean ebakuntza egin zioten. Protesia jarri diote, eta hamar egunen ondoren badabil paseatzen. Beste bati belarrarian inplantea egin diote, eta orain gehiegi entzuten duela dio. Zientzia eta teknologiari esker gure gorputza kaskartzen den neurrian makina zatitxoak sartzen dizkigute, eta prest gaude aurrera jarraitzeko. Pixkanaka, gure gorputza biologikoa izatetik bio-mekaniko izatera pasatzen ari da.

Danik gai horiek aztertzen ditu lanean, eta esan zidan Illinois inguruan gorputz bio-teknologikoaren aroa gainditu dutela, eta orain bio-teknologiko-energetikoa ikertzen ari direla. Orduan zer? Etorkizunean pertsonak eta robotak elkar bizi beharrean, gu bihurtuko gara robot, eta robotak, gizaki... Fusionatu egingo gara, alegia!

Oraindik kostatzen da egiten zait ulertzea nola egiten dituzten marrazki bizidun zibernetikoak edo nola horrenbeste tonako hegazkin bat airean mantentzen den... Agian, urte batzuk barru, farmaziara joan beharrean sendagai bila farmazia-robotegira joango gara: "Mesedez emango didazu txip bat euskarazko zuberotar euskalkia ere hitz egin ahal izateko eta, bide batez, enzima batzuk, jan dudana lubrifikatzaile honen

digestioa egin ezinik nabil eta?" Edo agian: "Budista izateko kontzientzia erostera nator, oinarrizko bertsioa mesedez, dudanez ez dit funtzionatzen eta".

Teknologia eta biologiaren eboluzioak duen abiada ikusita, gure buruek ere aldaketa horietara egokitu daitezkeen zerbait egin beharko dute jakintsuek. Nire amamak bizi izan zituen aldaketen aurrean azken urteetan egin zuena egitea espero dut nik ere: datorrena datorrela, eta disfrutatu ahal dena. Azken finean, gorputz-makina-energia izango banaiz, onerako izan dadila.

Edurne Bilbao



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Teknologia eta biologiaren eboluzioak duen abiada ikusita, gure buruek ere aldaketa horietara egokitzeko zerbait egin beharko dute jakintsuek"

ZINE AGENDA ESTREINATU DUGU!

Hilabete guztiko zine emanaldien berri emango dugu



Egin klik eta ikusiko duzu

www.elgoiBARREN.net



SEGUNDO RAIGOSO

CAPITOL ZINEKO AKOMODADORE OHIA

“Zinean guardia
zibilentzako
lekua
erreserbatuta
egoten zen”



Orain dela ez hainbeste herrian hiru zine zeuden (Capitol, Elgoibarresa eta Odeon). Garai hura ekarri nahi izan dugu gogora Segundo Raigosoren testigantzarekin. Capitol zenan, oraingo Herriko Antzokian, akomodadore eta kontserjea izan zen urte askoan, zintera pelikulak ikustera joatea herritarren denborapasa ohikoena zenean. Sasoi paregabea zen zine zaleentzat. Gaur egungo egoera bestelakoa da: zine bakarra dago herrian, eta domeketan gaueko emanaldia kendu egin dute. Raigoso erretiraturik dago, eta bere semeak hartu du lekukoa. Oraindik ere Herriko Antzokian bizi da, proiektagailutik gertu. Inork baino hobeto ezagutzen du zineak herrian izan duen bilakaera. Herritarrek ere, ka-lean ikusten dutenean, etengabe agurtzen dute Raigoso, hainbeste urtetan zine-aretoa babestu duen laguna.

Herrian hiru zine-areto zeuden sasoi eza-gutu zenuen. Jendez gainezka egoten ziren?

Bai, bi pelikula emanaldi zeuden. Capitolen Manolo Escobarren pelikula bat botatzen bazuten, western bat botatzen zuten beste. Bizikleta hartu eta argazki-filma ematen genuen beste zinera. Jendeak Capitol urruti zegoela esaten zuen eta ez zela joango. Orain, ikusten duzu, herriaren erdigunean dago.

Goiz hasi zinen Capitolen lanean?

Bai, soldaduska bukatu eta gero hasi nintzen.

Nolatan hasi zinen?

Jende falta zegoelako. Lagun batek galde-tu zidan ea akomodadore izan nahi nuen. Gero, kontserje ere izan nintzen.

Bitxikeria asko biziko zenituen. Kontatu bat...

Sasoi hartan gazteak hobeto portatzen ziren gure lana errespetatzen zutelako, eta orain, berriz, ez. Guardia zibilentzako lekua erreserbatuta zegoen, aretoaren goialdean eta behealdean.

“Gaur egun aukera gehiago daude; sasoi hartan zinera joatea zen dibertimendua”

Zein pelikula zuten gogoko?

Iskabilaren bat bazegoen, joaten ziren, baina gero pelikulak ikusten zituzten. Inor ez zen atrebitzen leku horietan esertzen. Jendea isilik egoten zen haiek zeuden bitartean.

Haiek joatean ere bai?

Ez, orduan hasten zen zalaparta. Trihornioek errespetua eragiten zuen.

Sasoi hartan, zinera joatea atsegin zuen jendeak...

Bai, ez zegoen besterik. Gaur egun aukera gehiago daude: futbol zelaietan entrenatzen daude umeak, bideoak daude etxean, telebistak... Sasoi hartan herri guztian bi telebista egongo ziren. Gogoratzen dut behin futbol partida bat ikusi nahi genuela,

eta, azkenean, Txarridunara joan behar izan genuen.

Capitolen hasi aurretik zine zalea zinen?

Ez Capitolen lanean hasi bezain beste!

Zenbat pelikula ikusiko zenituen urte horietan guztietan?

Ez dakit, baina asko. Ez ditut kontatu, jendeari esertzen lagundu eta gero, hasten nintzen filmak ikusten.

Zeintzuk ziren zure favoritoak?

Sara Montielen pelikulak, Conchita Velascorenak... *La muerte tenía un precio* asko gustatzen zait, baita *El bueno, el feo y el malo* ere. Orain semea dagoela, joaten naiz batzuk ikustera.

Semea, zu erretiratzean hasi zen lanean?

Bai, antzerki emanaldietan argiztapenez arduratzen da. Atezaina ere bada.

Atezaina ere izan zinen...

Sasoi hartan atezaina zena erretiratu ondoren, ni geratu nintzen postu horrekin. Ikatza erabiltzen genuen berogailua pizteko. Hasieran, kanoi bat etortzen zen ikatza ekartzera eta sotoan lagatzen genuen. Gero gasolea erabiltzen hasi ginen. Batzuetan metxeroak ez zuen ondo pizten, eta zine-areto guztian gasolio-kiratsaz betetzen zen.

Dibertigarria zen zine-aretoan lana egitea?

Bai, batzuetan egiten zuten hotza zela-eta mantarekin tapatzen ginen azkeneko ilaran. Txarridunako bihurtze asko ere filmak ikustera joaten ziren.

Pelikulak proiektatzeko tentaldirik izan zenuen?

Bai, baina horretan ere jardun izan banu, lan gehiegi izango zen. Dena egitea nahi zuten, baina ezezkoa esan nuen.

Zeintzuk ziren hiru zine aretoen arteko desberdintasunik nabarmenenak?

Odeon zen onena. Antzoki handia zen, han ez nuen lanik egin. Elgoibarresak eta Capitolek jaun bera zuten.

Odeon eta Elgoibaresa ixteak pena eman zizun?

Bai, jende-ilara izugarria egoten zen. Batzuetan, bi zine-aretoko jendetzak elkar bat egiten zuen Plaza Handian.

Gazte asko joango ziren zinera...

Guztiak joaten ziren; ez ziren kalean paseatzen hainbeste ibiltzen. Bizitza mota bestelakoa zen: zinea, berbena... Baina sasoi hura bukatu zen. Oraingoa baino giro sanoagoa zen.

Gaur egun zenbat aretozain ditu Herriko Antzokiak?

Bi: bata goialdean, eta bestea behealdean. Ikusle gutxi badaude, bakarra jartzen dute. Antzezlanetan bi egoten dira.

Zuen sasoiaren janaria eraman zitekeen zine-areto barrura?

Debekatu egin zuten janaria ematea, baina ikusleek esaten zuten hiriburuetan lagatzen zutela. Albokoa palomitak jaten badago, ez duzu pelikula patxadan jarraituko.

“Odeon zen sasoi hartako zine-aretorik onena, antzoki handia eta dotorea zen”

Zure kasuan, pelikulak etxean bertan, telebistan eta zinean, ikusteko aukera duzu...

Bai, askoren ametsa...

Jendeak oraindik ere agurtzen zaitu kalean izandako lana dela-eta?

Bai, aurreko alkateak esaten zidan: “Zu ni baino alkate hobea izango zinateke, mundu guztiak ezagutzen zaitu-eta”.

Zure sasoiaren filmak gogoratzen dituzu?

Bai, lagunaren artean bereziki, Sarita Montielen pelikulak...

Nola ikusten duzu oraingo Montiel?

Gaizki. Burua galdu du. Txinatarrek edo japoniarrek, bietako bazuek, esango luketen bezala “hegazkina joan zaio”.

Zelan zaude osasun aldetik?

Okerrago egondakoa naiz, baina orain hobeto nabil.

Ordu asko lan egindakoa zara. Pena merezi izan du?

Bai, bereziki etxebizitza zinean gurelako.

Askok zor diozu Capitoli?

Bai, pisu eskasia zegoen, eta esan zidatenean ea han lan egiteko prest nengoan, baiezkoa esan nien.

Jende gehiago ere egongo zen, orduan, zine-aretoan lan egiteko prest, ezta?

Bai, baina ni izan nintzen lehena.



Elgoibarren ez da beti izaten

Jaurilaritzak farmazien antolaketa arautu zuen 1997ko dekretu batean. Ondorioz, guardiako botikak ez dira beti Elgoibarren zabalik izaten. Batzuetan Mendaro edo Soraluze-ra joan beharra izaten dute erabiltzaile elgoibartarrek. Horren inguruan erabiltzaile askok haserrea agertu dute.

ZU +

PILAR OSORO

Kontsumitzailea

“Botika bakoitzak hilero asteburu batean zabaldu beharko luke, lehen bezala”

Zuk zeuk erabiltzen duzu guardiako farmazia?

Bai, jakina. Tokatu izan zait behar izatea.

Eta Soraluze edo Mendarora joan behar izan duzu inoiz?

Ez. Horrelakoetan laga egin dut, garrantzirik ez zuelako. Baina beharra egon izaten da. Ume txikiak dauden tokian, txupeteren bat hondatzen bazaizu, edo jende nagusia badago... Nire etxean bi bakarrik gaude, andre-gizonak. Eta ez zait gertatu, baina, nire senarrari gaixorik egotea tokatuko balitzaio, nik seme-alabei edo bateren bati eskatu egin beharko nioke eramateko. Nik badaukat karneta, baina orain dela hogeitau urte ia ez dut hartu autoarik.

Zure lagunen batek kanpora joan beharra izan du?

Bat Mendarora joan zen... Ez zegoen urruti, semea bazeukan libre, eta ekarri zuen senarrak behar zuena. Niri hori gertatu balitzait, nik bateren bati deitu beharko nioke, edo taxia hartu beharko nuke, edo alabari edo suhiari, edo laguneri bati deitu eurak ez badaude libre, edo ez badaude hemen. Baina Elgoibarren 10.000 pertsona egon eta hori sentitzea gogorra da.

Zer egin daiteke orduan?

Lau botika daude. Hilean behin tokatuko litzaioke bakoitzari. Ez

dut uste hainbeste denik... Eurek jai hartu behar dutela ere pentsatuko dute.

Orduan lehengora bueltatzea onena izango litzateke, zure ustez. Hori da, lehen bezala.

Kalean guardiako botiken inguruko kexarik entzun izan duzu?

Kalean denek esaten dute, “*jolin* Soraluze tokatu zait. Eta non dago botika hori? Zein kaletan?”. Ni Errosario kalean bizi naiz eta askotan jendea begira egoten da: “Zein botika tokatzen da?”. Lehenengo izena jartzen du, eta galdetzen dute, “non dago hori?”. “Hori Plaentxian edo Mendaron”.

Zu kexatu izan zara?

Itxi zutenean, lehenengotik botikariari, neskari, zera esan nion: “Hau zelan egin duzue?”. Berak hau esan zidan: “Guri proposatu egin digute eta guk ezetz zelan esango dugu, ba? Hori zuen gauza da”. Berba horiek. Baina ez modu txarrean. Ni gehiago ez naiz kexatu, inon ere ez.

Baina jende gehiago ere kexatuko zen...

Bueno! Jendeak kalean, bai, baina gero inork ez dugu aurpegia eman nahi izaten.

+ NI



PILAR ETXEBERRIA

Botikaria

“Ahal dugun neurrian zerbitzu ona emateko ahalegina egiten dugu”

Zein da guardiako botiken funtzioa?

Urgentziarako beharretarako dira. Gehienbat larrialdietako errezeptzako zerbitzua da.

Guardiako botiken zerbitzua ondo erabiltzen dugu erabiltzaileok? Gehiegikeriarik izaten da?

Elgoibarren nahiko ondo erabiltzen dute. Jendea nahiko ondo dago hezituta, oro har. Lehen ez zen hala gertatzen. Normalean, jendeak ez du gehiegikeriarik egiten gaur egun. Gauetz oso jende gutxi etortzen da, eta datozenek anbulatorioko errezeta ekartzen dute.

Elkarren artean zelan antolatzen zarete Elgoibarko farmaziok guardiako zerbitzua eman ahal izateko?

Lehenik eta behin, eskualdeko zeari buruz egin behar dugu berba. Eusko Jaurlaritzak dekretua kaleratu zuen 1997an. Eskualdeko egin gintuzten: Elgoibar, Mendaro eta Sorluze farmazia-eskualde izendatu zuten. Guztira zazpi botika gaude: Elgoibarkoak, lau, eta kanpokoak, hiru. Era horretan, Elgoibarren lau asteburutan 48 orduko guardia zerbitzua egoten da, zazpitik, eta beste hiru botikak kanpoan gelditzen dira, beste hiru asteburuetarako. Hala ere, sal-

buespen bat egiten dugu: urte hasierako egutegia prestatzerakoan, Jaurlaritzari eskatzen diogu zapatu goiz guztietan zabalteko, lane-gunak badira. Berez, ez zaigu zapatu goizetan irekitzea tokatzen. Eta hori zertarako? Kanpoan tokatzen den hiru asteburuetan, behintzat, zapatu goizean Elgoibarrek zerbitzua izan dezan. Eskakizuna Jaurlaritzara bidali eta urtero onartzen digute. Hori guk geuk eskatzen dugu. Horrez gain, egutegia prestatzerakoan, beti hartzen dugu kontuan jai egun asko direnean Elgoibarri ez bazaio guardiarik tokatzen; aurten, esate baterako: Aste Santuan ez zitzaigun tokatzen. Berez itxita eduki behar genituen Elgoibarko botikak, martitzenetik martitzenera. Orduan, geure artean antolatu egin ginen egun batzuetan behintzat botikaren bat zabalik izateko. Arduraz jokatzen dugula uste dut eta Elgoibarko herriaren beharrak aztertzen ahalegintzen gara. Ahal den neurrian, nahiko zerbitzu ona ematen dugula esango nuke.

Kexarik izan duzue?

Bai, eta normala da. Zapatu edo domekan anbulatoriora joan eta Elgoibarren botika itxita egotea *faena* handia da. Eta guk hori ulertu egiten dugu, jakina. Zelan ez ba? Baina hori ez dago gure esku.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako 33/01 azuia

Dispertsioa salatzea ez da delitua. Preso politikoen kolektiboaren kontra hamarkadetan ezarri den eta ezartzen den dispertsio eta muturreko neurriek osatzen duten salbuespen egoera da delitua.

Tortura salatzea ez da delitua. Torturatzea eta tortura ahalbidetzen duen tresneria hori guztia da delitua; salbuespeneko tribunalak, inkomunikazio legea eta torturatzeko eraikia den inpunitate esparrua bera da delitua.

Errepresioa salatzea eta pertsonen eskubideak babestea ez da delitua. Estatuen biolentzia eta eskubide urraketa dira delituak.

Elkartasuna ez da delitua. Presoak eta Euskal Herrian errepresioa jasaten duten milaka emakume eta gizon babes eta elkartasunik gabe uzteko mugimenduen kontrako kriminalizazio eta erasoak dira delitua.

Preso, iheslari eta beren senitarteak lagundu eta babestea ez da delitua. Kolektibo hauek hondoratzeko eta zaititzeko helburuarekin burutzen diren jazarpen, eraso eta eskubide urraketa horiek guztiak dira delitua.

Auzipetu dutena eta epaitu nahi dutena Estatuen biolentzia eta errepresioaren salaketa eta euskal preso nahiz errepresaliatu guztiekiko elkartasuna da. Frantziako eta Espainiako Estatuak euskal gizartearen eta munduaren aurrean biluzten dituen eta beren izaera

ez demokratikoa begi bistako egiten duen testigu nagusia erditik kendu nahi dutelako.

Apirilak 25, mobilizazio eguna: "Euskal Herriak askatasuna behar du".

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimendua

Mendizaletasun iraunkorra

Azken "Pyrenaica-n" horrela agertzen da editorialean, eta aurreko aste-ko "mendian motorrik ez" eskutitzarekin erlazioa duenez, nik ere nire iritzia adierazi nahiko nuke.

Diozun bezala, mendizaleok naturarekin kontaktua, patxada eta lasaitasuna bilatzen dugu beste gauza batzuen artean, baina hori apurtzera datoz motor edo quadak. Horrez gain, nere ustez, eski pistek, antenek, esplozazio eolikoek, ur presek, harrobiek edo autopista eta errepideek ere ondorio bera ekartzen dute. Baita ere naturaren industrializazioak, pinuen monokultiboak (udaberrian harrak edo pestizidak), tunelek urpeko urak agortzen dituzte, eta abar luze batek ere berdina dakarte.

Badakit ni ez naizela honetaz hitz egiteko pertsonarik egokiena, motorrean ibilia bainaiz, eski pistetan ere bai, antenak erabiltzen ditut telefono mugikor bitartez, elektrizitatea kontsumitzen dut eta autopistaz mugitzen bainaiz, baina bada aldatzen hasteko unea, garapen hau jasangarritasunetik edo iraunkorretik oso urrun baitabil azken

aldian, besterik esaten badigute ere!

Mendizaleok, mendia eta ingurugiroa maite ditugunez, pentsatzen dut jakitea gustatuko zaizuela Euskal Mendizale Federakundeak (EMF) ingurugiroaren gaia aztertuz liburu bat atera berri duela. "Ingurumen legediari buruzko eskuliburua mendizaleentzat". Bertan, naturaren kontserbazioan parte hartzeko jarraibide on ugari, mendia erabiltzen dugunon betebeharrak eta hauek bete daitezkeen nola exijitu ere ageri dira. Agian ideia ona litzateke Morkaikotik liburuaren aurkezpena egitea, ziur egileak gustura etorriko direla gure zalantzak argitzera.

Administrazioak zerbait egin behar lukeela diozu. Guztiz ados, baina zer espero dezakegu Amenabar administrazioaz, orain AHT sartzeari baldin badigute? Udalaiz edo Aralarreko sarraskia ez espero administrazioek saihestuko dutenik. Herritarrok mugitzen ez bagara jai daukagu, motorrez gain lehenik obrak, lur mugimenduak, zaborteak eta ondoren ziztu bizian pasako den trenarekin ere agoantatu behar dugu eta!

A.I 15.392.807-B

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





**Alberto
Agirreazaldegi**

Gipuzkoako
bidegorri sareak
106 kilometroko luzera

duela eta pozik agertu da gure diputatu nagusia. Mugikortasun iraunkorraren aldeko apustu garbia dela dio Markel Olanok. Edo Markel eta ni Gipuzkoa desberdin batean bizi gara, edo Elgoibar eta Debabarrenaz zeharo ahaztu da. Egunkariaren ondoko zutabearen beste hau jartzen zuen: Nuria Lopez de Guereñu sailburuak trenbide sarea sortzeko beharra defenditu zuen atzo.

“Bidegorrien sarea osatu dezatela lehenbailehen”

Elgoibarren eta inguruan ez daukagu bidegorririk ezta margotuta ere. Elgoibartik Plaentxiara, Eibarrera edo Debara joateko aukera polita litzateke bidegorria. Abel, ez litzateke zaila izango Elgoibartik Mutrikura joatea alabekin bizikletaz. Hori baino mugikortasun errazagorik ez litzateke! Itsasertzera edo hondartzara joateko aukera hoberik aurkitzea zaila elgoibartarrantzat. Baina ametsak izatea libre da eta akaso aitita egindakoa bilobekin ibiltzeko zatitxoren bat izango duzu, Abel.

Biak dira berri pozgarriak. Gertuko joan-etorriak egiteko modu azkarra, segurua eta ekologikoagorik zaila aurkitzea. Baina, noizko gauzatuko da plan hau? Azken hamarkadan askotan entzun dut bidegorrien kontu hau baina oraindik oso gutxi hedatu da gure aldean eta egin dena ez da egin garraioa ordezkatzeko asmoarekin. Zergatik ez dute diru gehiago inbertitzen aspaldi agindutako sare horretan? Bitartean, AHT egiteko planarekin okupatuta daude eta, dirudienez, garraiorako aurrekontu guztia hor gastatzen dute. AHT egin dezatela nahi badute, baina bidegorrien sarea osatu dezatela lehenbailehen.



**Abel
Irizar**

Gure agintarien garapen-ereduaren adibidea deskribatu duzu, Alberto, eta mugikortasun jasangarritik oso urruti ikusten ditut nik. Obra erraldoiak abiadura handian egiteko kapaz dira, baina ez dira gai bidegorri sare ziztrin bat egiteko. Hortxe ikusten da zeri ematen dioten lehenasuna: azpiegitura erraldoiei. Horiek azkar eta ondo egiten dituzte. Zenbat interes eta azpian ote dago porlan pilo horien atzean...!

Taktika ona da denon diruarekin AHT (Abiadura Handiko Tren) egin, 426 kilometroan zehar txikizio latza eragin, eta ondoren ukitu berdea emateko lau bidegorri egitea, bide batez ekologiararen domina zintzilikatuz. Mutrikun ere horixe egingo dute superportu berriarekin. Kosta guztia hormigoiz lepo bete, aisialdirako gune naturalak suntsitu, eta ondoren obrari ekologiararen etiketa jarri, olatu bidezko energia-estazio esperimentalarekin. Aurpegia garbitzeko erabiltzen dute ingurumena, eta ez helburu modura. Bai AHTren kasuan eta bai Mutrikuko superportuaren kasuan, uste dut konpontzen dituen arazoak baino, sortzen dituenak askoz gehiago direla.

“Aurpegia garbitzeko erabiltzen dute ingurumena, eta ez helburu modura”

Trenbide-sare egokia sortzea oso ondo legoke, eta egin beharrekoa da. Ederra litzateke Arrasatera lanera trenez joan ahal izatea egunero (aukera hori ez digu emango AHTk). Asteburuetan, berriz, bizikletak hartu eta gustura joango ginatke familia osoa Mutrikutik Elgoibarrera. Bidegorriak egitea bakarrik falta da. Ez da proiektu zaila. Noizko egingo duten? Hori diputatuek bakarrik dakite...



Elgoibarko Udala



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Elgoibarren azken aldian eraiki eta eraberritutako etxeak asko dira.

Hirigintza alorrean garrantzirik ematen zaio estetikari gure herrian?



J. Antonio Fernandez

35 urte, okina

Alde zaharrea ezin da egin duten moduan eraberritu. Santa Anako etxeak ez daude ondo kokatuta. Krutzelaegikoek, berriz, guardia zibilen etxeak ematen dute, barrutik ondo badaude ere.



Silvio Vaz

31 urte, diseinatzailea


Alde zaharrea behintzat tradizioari eutsi behar zaio. Etxebizitza premia larria da, eta beharra estetikaren gainean ezartzen da. Kasu batzuetan egindakoa justifika liteke, baina ez beti.



Begoña Gurrutxaga

61 urte, etxekoandrea

Zer esango dizut, King-kongen bizi naiz-eta! Komodoa da etxea, baina zafarra. Estetika orain ez da zaindu eta lehen ere, ez. Kolorinetako balkoiak nahiko ondo gelditu direla uste dut.



Mariasun Galvan

60 urte, etxekoandrea

Santa Anakoak bapatean egin dituzte, eta kantoi arraroa egin diote. Herriko Antzokiko etxea nola laga duten ez zait gustatzen, baina Malapekoa gustatzen zait.

10_{eko}
TXIKIAN



**ALEX
ARCE**

Metalurgian lan egiten du

1. Zer falta zaio herriari? Eta zer dago soberan?

Soberan autoak ditu, eta faltan, aparkalekuak. Horrez gain, umeentzako parke edo gune berde gehiago falta zaizkio.

2. Azken aldian egindako obretatik, zein gustatu zaizu gehien?

Herri Antzokiaren ingurua.

3. Nolakoak dira elgoibartarrak?

Normalak, besteen parekoak. Elgoibartarra naiz jaiotzez, baina Mendaron bizi naiz. Emaztea ondarrutarra da, eta Elgoibarren baino lasaiago bizi gara Mendaron.

4. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzen?

Ondo dago herriko kultur eskaintza: antzezlanak, zinea... Ahal dudan neurrian joaten naiz kultur emanaldietara. Herriko Antzokiko filmak ere proiektatzen ditut, beste birekin.

5. Telebistan askotan irten da gure herria, ezta?

Bai, albiste triste eta pozgarriak emateko. Nire ustez, gehiagotan atera da albiste positiboen berri emateko: Muguerza... Beste askok kontrakoa esango dute.

6. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...

Zapatuko feria.

7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Ume berrien itxaropena da Deba ibaian bainatzea. Txikitan ez nintzen inoiz bainatu, eta ez dut uste hemendik aurrera ere bainatuko naizenik. Hala ere, lehen baino hobeto dago.

8. Herri euskalduna iruditzen zaizu gure herria?

Bai, baina Mendaro herri euskaldunagoa iruditzen zait. Dena den, Mendaroko biztanle berriek ez dute euskaraz hainbeste hitz egiten.

9. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Bai. Autobusa eta trena ere baditu.

10. Zein da elgoibartarrik famatuena, zure ustez?

Etxebe.



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabiloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Soraluze

Lelhoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Javi

Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santa Ana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Aramar

Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 5 I
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Pelo

Herriko Enparantza, 5 behea
MENDARO
☎ 943 03 35 35/660 791 723

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserrira
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.es
www.excavacioneslekunberri.com



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Lorezaintza

Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak).

San Bartolome, 25

Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 74 85 93 (Idoia)

685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan:

20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus optiko-optometriska

San Bartolome, 10

Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria) San Frantzisko, 21

Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com

webgunea: www.irale.com

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea

(bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera 8:00 - 14:00

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745

(Goiz eta arratsaldez)

Jausoro, 6 behe

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30





Kiroldegira bidean dagoen parke txikia konpondu egin behar da: “San Roke auzoan dagoen parke txikia oso egoera txarrean dago, eta konpondu egin behar da. Ume asko joaten dira kiroldegira, eta guraso asko parke horretan egoten dira zain. Pixkat txukundu egin behar dela iruditzen zaigu”.

Erabilitako olio botatzeko edukiontzia jarri behar dira herrian: “Hilean behin etortzen da kamioi bat erabilitako olio jasotzera, baina lan egiten dugunok ezin izaten dugu olio birziklatu. Beste herri batzuetan egin duten bezala, erabilitako olioarentzako edukiontzia jartzeko beharra dagoela iruditzen zaigu”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com edo 943-74 41 12



Herritar batzuk Jon Lizarralde txalotu nahi dute, Elgoibarko dantzari gaztetxoekin egiten duen lanagatik: “Txalo bero bat eskaini nahiko genioke Jon Lizarralderi, urte urte Elgoibarko gaztetxoak dantzarako prestatzen egiten duen lan demasagatik. Aurreko asteburuan izan dugu adibidea: Elgoibarko Soinu Zahar eta Aurreku Txapelketan elgoibartarrak izan ziren lehen sailkatu guztiak neskei dagokienean, eta mutiletan ere aurreko postuak lortu zituzten. Zorionak, Jon, eta eskerrik asko!”. Era berean, gurasoen partez txalo zaparrada bero bat, parte hartu zuten gaztetxo guztiei, maila bikaina erakutsi zutelako.

ESKERTZA



Jennifer Rivero Flores

2008ko apirilaren 10ean hil zen

*Zeruan aingeru bat falta zen
eta zu aurkitu zintuzten.
Beti gure bihotzean,
maite zaitugu.*

*Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Ander Soraluze izango da Elgoibarko Izarra kultur elkarteko lehendakaria datozen urteotan

Elkarteak 45 urte egin ditu eta bazkide kanpaina berria jarriko du martxan

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak astelehenean, apirilaren 14an, egin zuen bazkideen urteko Batzar Orokorra, eta, besteak beste, lehendakari berria aukeratu zuten. Ander Soraluze elgoibartarra izango da datozen urteotan kargu horretan. 28 urte ditu eta ingeniari informatikoa da. Hiru urteren ondoren, Ane Zabalak lehendakari kargua laga zuen Batzar Orokorrean.

Elgoibarko Izarrak dituen proiektu bakoitzeko teknikariek hartu zuten hitza Batzar Orokorrean. Bakoitzak bere proiektuaren berri eman zuen: 2007an eginikoen balorazioa egin ondoren, 2008rako dituzten helburuak azaldu zituzten. Administrazio buruak, bestalde, elkarteko diru kontuen berri eman zien bazkideei.

Zuzendaritza Batzordea

Orain dela hiru urte osatu zen azkeneko Zuzendaritza Batzordea, eta orduetik aldaketak izan dira. Gaur egun, bost lagunek osatzen dute taldea: lau militante (Ander Soraluze, Ibon Serrano, Gaizka



Argarate, Leire Agirrebeña) eta Imanol Larrañaga, elkarteko dinamizatzailea.

Elkarteak, 45 urte

Elgoibarko Izarrak 45 urte egin ditu martxoan, eta urteurrena dela aprobetxatuz, bazkide kanpaina berria jarriko du martxan. 575 bazkide inguru ditu elkarteak gaur egun, eta zenbaki hori handitzea da helburua.

Bazkide izateko interesatuek hainbat modu dituzte:

Telefonoz: 943 74 16 26

Emaillez:

imanol@elgoibarkoizarra.com


Pertsonalki: Ubitarte 4, behea

Urkieta etxea bota egingo dute hilabete amaieran



Plaza Handian, udaletxearen eta San Bartolome parrokiaren artean, dagoen eraikin historikoa bota eta etxebizitza berriak eraikiko dituzte. Hil bukaeran hasiko dira etxea behera botatzeko lanak. Etxeberriarrak 150 urte baino gehiago daramatzate etxe horretan bertan. Flori eta Pilar botikari familiako bosgarren belaunaldia dira, eta seigarrena bidean da, Amaia eta Ane ilobek emango diotelako segida. Pilarrek azaldu duen bezala, "gure anaia ez da botikaria, baina bere emaztea, bai. Euren alabak ere botikariak izango dira. Beraz, seigarren belaunaldia ziurtatuta dago". Cancio Etxeberriak hasi zuen botikarien dinastia. Ondorengoek: Miguel, Juan Cancio, Miguelek, Pilar eta Flori.

Protagonista **Roberto Zearsolo**



Aste honetako albiste nagusia izan da Guggenheim museoko lapurreta, eta protagonista elgoibartarra da. Roberto Zearsolo, Guggenheim museoko finantza arduraduna Elgoibarren jaio zen orain dela 48 urte, 1960an. 500.000 euro inguru osatu ditu 1998tik 2005era bitartean, eta aste honetan bertan kaleratu dute bere lanpostutik. Apirilaren 9an eskutitz bat bidali zion museoko zuzendariari egindako gutzia azaltzen, 251.000 euroko txekearekin batera. Hiru hilabetetan diru gutzia itzuliko duela agindu du.

Zenbakia **2010**

2010. urteko abuztuaren 31n itxiko dute Pilar ikastetxea, eta eraikinaren jabetza Udalaren esku geldituko da. Gaur egun Errezabal Guraso Elkarteak eta Gipuzkoako elizbarrutiak erdibana kudeatzen dute ikastetxea. San Viator kongregazio-ko fraileek 2006an ikastetxea itxi egingo zutela jakinarazi zutenean, erabaki horren aurkako mugimenduak sortu ziren herrian. Ondorioz, gurasoek hartu zuten ikastetxearen ardura, baina bi urte barru betirako itxiko dute.


Txokoa **San Frantzisko kaleko etxea**

Elgoibarko Alde Zaharra itxuraz aldatzen hasita dago. Azken urteotan kolorez jantzi dira etxebizitza mordoia eta, dagoeneko, itxura alaiagoa daukate herriko kaleak. Aste honetan atentzioa eman digu San Frantzisko kaleko etxe honek: koloreetako balkoiak jarri dizkiote: laranja, horiak eta berdeak. Jende asko aurkitu dugu aste honetan gora begira, harrিতuta. Ume batek bere amari etxe horretan bizi nahi duela esaten ere entzun dugu. Batzuek gustuko dute, eta beste batzuek, ez. Denon gustua egitea ez da makala.



Ina Garagartza hil da

Martxoaren 21ean hil zen Ina Garagartza, 61 urterekin. BARRENen hasierako ibilbidean asko lagundu zion Inak aldikariko lantaldeari, eta astekaria egin izan dugun guztiok eskerrak eman nahi dizkiogu. Izugarri gustatzen zitzaion argazkilaritza Inari, eta beti egoten zen erretratu zaharrak BARRENi lagatzeko prest. Pello Arrietarekin batera, lan handia egin zuen BARREntzat: berak argazkiak jartzen zituen, eta Pellok historia gehitzen zion irudiari. Bere etxean Elgoibarko txoko guztiak dauzka erretratueta jasota.



1943 eta 1958ko kintoak

1943an jaio eta aurten 65 urte betetzen dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute maiatzaren 24an Sigma jatetxean. Interesatuak Euskadiko Kutxako kontu zenbaki honetan 60 euro sartu beharko dituzte maiatzaren 17a baino lehen: 3035 0007 28 0071044040. 1958an jaio-takoak, bestalde, hasi dira 50. urteurreneko ospakizuna prestatzen. Bertan parte hartu nahi dutenek 691 075 965 (Alfredo) edo 657 797 015 (Mila) telefonoetara deitu dezakete.

Gaixoak Lourdesera joateko diru bilketa

Urtero bezala, Gipuzkoako gaixo eta ezinduek Lourdesera egingo dute bidaia, maiatzaren 29tik ekainaren 2ra. Horretarako, diru bilketa egingo da asteburuan: hilaren 19a, 19:00etako mezaren ondoren jarriko da mahaia elizako arkupeetan eta hilaren 20an, 10:30eko eta 12:00etako mezen ondoren. Antolatzaileek herritarrei dei egiten diete diru bilketa honetan parte hartzeko.

NAHIDON?

Rugbia



Eibarko klubak bost lagun behar ditu nesken taldea osatzeko

Emakume gehiagoren faltan

Eibarko Hierros Anetxe rugbi klubean Elgoibarren bizi diren bi neskek jokatzeko, momentuz. Sonia Arrillagak eta Olaia Blancok Debabarreneko emakumeei, Elgoibarkoei bereziki, dei egiten diete adin mugarik ez duen kirol honetan parte hartzeko. Gutxienez bost lagun berri behar dituzte entrenatzen jarraitu eta egunen batean, Euskadiko ligaxkan parte hartzeko. Horixe da euren erronka nagusia. Bien bitartean, rugbiarekin gozatzeko.

Andoni Iturbe



Sonia Arrillaga eta Olaia Blanco rugbian jokatzeko kirolariak dira. Eibarko Hierros Anetxe rugbi taldean dihardute, baina nahikoa kide ez dituzte. "Irailean hasi ginenean gehiago ginen, baina lanagatik edo bestegatik, gaur egun hamar lagun entrenatzen gara", adierazi dute. Rugbiko taldea osatzeko, gutxienez beste bost lagun behar dituzte. Baldintza bakarrak gogoia izatea eta sasoi onean egotea dira. Olaiak esperientzia badu rugbi munduan, anaia ere jokalaria duelako. Soniaren kasua bestelakoa da. "Nik ez nuen ia kirolik egiten. Aerobica egin nuen urtebetez. Gero bost urte egon nintzen ia ezer ere egin gabe", argitzen du. Hortaz, irribarrea eragiten dio aerobicetik rugbira pasa dela gogoratzeak. Topikoak topiko, rugbia oso kirol irekia dela argitu nahi dute, gorpuzkera guztiak aintzat hartzen dituen.

Rugbian jokatzeko berdin du argal edo lodi egoteak, sasoiko bazaude

Diskriminaziorik gabea

Rugbiaren topikoetako bat, baita gizonezkoen kasuan ere, indartsu egon beharra da. "Kirola egin nahi nuen, baina banekien ez nuela soinketa erritmikoa egiteko gorpuztik. Rugbian jokatzeko edonork balio lezake, lodia edo fina egon. Entrenamenduaren bitartez sasoiko badago, hartuko du eskarmentua", azaldu du Soniak. Ildo horretan, nabarmendu egin nahi dute rug-

biak ez duela diskriminaziorik eragiten, ezta adin-tarteei dagokionean ere. Taldean dagoen gazteenak 17 urte ditu, eta helduenak, berriz, 32. "Arrasateko taldean badago 14 urteko jokalaria bikaina", diote. Potentzia eta azkartasuna behar dira bereziki, eta baloia arin pasatzeko gaitasuna izatea. Aurrelariak azkarra izan behar du, eta gainontzekoek (hiru laurden) talde lanean jokatzeko trebetasuna. "Baloia ere ezin da aurrera pasa", argudiatu dute.

Kontaktua

Rugbian dagoen beste topikoetako bat astakiloen kirol izatearena da. "Kontaktuzko kirola da, baina ezin da edonola blokeoa egin. Arauak errespetatu egin behar dira, eta lesioak beste kiroletan bezala egiten dira. Sasoiko bazaude, ikasi egiten duzu lurrera jausten", diote. Futboleant ostikadak ematen direla gogoratu dute, eta rugbian ez, askotan baloia-aren bila gogotsu hurbiltzen badira ere.

Teknika jakitea komeni bada ere, rugbi zelaian karakterea izatea ere jokoaren onerako izaten da. "Taldekideok karakterea dugu, eta askok prontoia ere bai", dio Olaiak. Behin entrenamendua bukatuta, giroa lasaitu egiten da. Egunen batean entrenamenduak eta gero partida ofizialak jokatzearekin amets egiten dute. Badakite ez dela sasoi egokiena, denboraldi erdian. "Irailean batu liteke jende gehiago. Urte bukaerara arte zaila izango da emakumezkoak animatzea, astean zehar jendeak dagoeneko baduelako egitekoren bat", diote.

Astean birritan entrenatzen dira: Eibarren, martitzenetan, 19:00etatik aurrera, eta eguenetan, 18:00etatik aurrera. Arrasateko neskekin ere entrenatzen dira. "Batzuetan, mutilak ere entrenatzen dira gurekin, eta animatu egiten gaituzte", gaineratu dute. Orain, emakume gehiago animatzea falta da, kirolean ere batuz indar gehiago izaten baita.

NORA JO

Kirola egitea eta giro jatorra gustuko baduzu, animatu eta joan zaitez martitzen eta eguenetan Eibarko Unbeko instalazioetara, edo bestela deitu 618 046 737 telefonora (Miren). Miren Arriola izan da talde honen bultzatzailea. Eibarko taldea iguera fasean zegoela, bere ideia izan zen emakumeen taldea bultzatzea eta horregatik dei egiten die neskei parte hartzeko.

EIBAR

Eibarrek izan zuen emakumeen rugbi taldea duela hamar urtera arte. Rugbian jokatzeko duten jokalaririk horien artea eta lagunak ere animatu egin dira kirol hori praktikatzera. Olaia Blancoren kasua da hori. "Hemezortzi urtera arte jokatu izan dut. Kirol polita iruditu izan zait beti", dio. Jarraitzeko asmoa du, noizbait Eibarko emakumeen taldea osatuko den itxaropenarekin.

EUSKAL HERRIA, PUNTAREN PUNTAN



Euskal Herrian, Iparraldean bereziki, rugbiak gero eta zaletu gehiago ditu. Hegoaldean, Getxoko taldea, bai gizonetako eta emakumeetako dagokienez, erreferentea da. "Euskadiko emakumezkoen ligaxkan talde hasiberriak eta eskarmentu handia dutenak daude, eta igartzen da desberdintasuna", azaldu dute Soniak eta Olaiak.

1985ean sortu zen Euskadiko Rugbi Federazioa. Urte horretatik aurrera, Euskadiko selekzioak bere nagusitasuna erakutsi du txapelketa autonomikoe-tan. Hala, zazpi aldiz irabazi dute gizonetakoek, eta emakumezkoek, behin, 2001ean. Euskal Autonomi Erkidegoan harrobi ona dago, eta kadete eta jubenil mailan ere lorpen handiak lortu dira. Dena den, Frantziak eta Britainia Handiak sekukalo tradizioa dute, eta munduan onenetarikoak dira.



Etxeko dantzariak maisutasuna erakutsi zuten Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan

Maria Ferreirok eta Andrea Arregik irabazi egin zuten, eta Aitor Asenjo bigarren geratu zen

Musika Eskolako dantzarien erakustaldia sekulakoa izaten ari da aurtengo Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa. Herriko Antzokian bildu ziren pasaden astebukerako Gipuzkoako dantzari gazte onenak, eta horien artean herrikoak. Txapelketa hasi denetik, zortzi proba irabazi dituzte. B mailan (11 eta 15 urte bitartekoak) Maria Ferreiro nagusitu zen, eta A mailan (7-11 urte) Andrea Arregi.

Mutiletan, B mailan, Aitor Asenjo eta Imanol Iturrino, bigarren eta laugarren geratu ziren, hurrenez hurren. Maiatzaren 17an jokatuko dira mutilen finalak Errenterian, eta Legezpian, neskenak, maiatzaren 18an. Elgoibartar askok dute sailkatzeko aukera.



11-15 urte bitarteko neskek:

1. Maria Ferreiro
2. Ane Espilla
3. Arantxa Ferreiro
7. Nerea Badiola
8. Nerea Perez
9. Iraitz Gonzalez
10. Leire Melgosa
12. Nora Bastida

7-11 urte bitarteko neskek:

1. Andrea Arregi
2. Nora Kortaberria
3. Naia Makazaga
4. Miren Astigarraga
5. Maddi Mendibil

11-15 urte bitarteko mutilak:

2. Aitor Asenjo
4. Imanol Iturrino



ESKERTZA

2008ko apirilaren 12an hil zen *Jose Mari Gorostegi Zabala* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Elgoibarko Herria instrumentu taldeen lehiaketa egingo da bihar, zapatua

Bertako bi taldek parte hartuko dute eta Euskal Herriko 255 ikasle etorriko dira

Musika eskolak biharko antolatu du Elgoibarko Herria instrumentu taldeen lehiaketa. Hiru kategoria ditu: A Kategoria (14 urtera arte) goizeko 10:00etatik aurrera; B Kategoria (18 urtera arte) arratsaldeko 16:30etan, eta C Kategoria (22 urtera arte) 12:15etan.

Elgoibarko bi talde

Elgoibarko bi taldek ere parte hartuko dute: A kategorian, Trikerio taldeak, Anabel Arrizabalagaren gidaritzapean, joko du eta Mitrovice Band, berriz, Xavier Dominguez en esku egongo da, C kategorian. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako 21 musika eskolek izango dute ordezkari-tza. Hernanik lau talde aurkeztuko ditu, eta jarraian Donostia, Irun eta Ermuko taldeek eskainiko dituzte kontzertu gehien. Epaimahaikideak Juan Navarro klarinete



solista, Patricio Goialde irakaslea eta Isabel Diaz musikologoa izango dira. Musika erreperitorioa ere zabala da: euskal abestiak, jazz... Kategoria bakoitzean hiru sa-

ri emango dituzte, baita beste hiru sari berezi ere: konposizio onena, epaimahaia-ren saria eta musika-instrumentu ezberditasuna.

Atxutxiamaikak antolatutako udako planetan izena emateko epea irekita dago

Atxutxiamaikako Udako planak euskararen erabilera sustatzeaz gain, umeen sormena ere bultzatzea du helburu. Horrez gain, udaleku bakoitzak bere adineko beharrei erantzungo die. Udaleku irekiak ekainaren 30etik uztailaren 24ra egingo dira Haur Hezkuntzako umeentzat, eta Lehen Hezkuntzakoentzat. Izena emateko epea apirilaren 30ean bukatuko da.



Udaleku itxiak Askizun (Getaria) egingo dira Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailakoentzat ekainaren 30etik uztailaren 6ra arte. Bosgarren eta seigarren mailakoak Lizarrara joan ahal izango dira, uztailaren 23tik uztailaren 30a bitartean. Informazio gehiago ikastetxeetan zabaldu diren esku orrietan topa liteke, 943 74 16 26 (Ione edo Ainara) telefonora deituz edota e-posta helbide honetara idatziz: atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com

Antzezlan

Udal Euskaltegiaren eta AE-Kren 25. urteurreuna gogora ekartzeko, Euskara batzordeak *Euskera sencilloaren manifestoa* antzezlan programatu du. Bikoteatro taldeko Mikel Martinez eta Patxo Telleriak taularatuko dute apirilaren 25ean Kultur Etxeko sotoan, 22:00etatik aurrera. Umorean bitartez, euskaldun zaharren eta berrien arteko harremanak azalduko dituzte. Sarrera doan izango da.

Magia eguna

Bihar, zapatua, magiaren herria bilakatuko da Elgoibar goiz-goizetik. 11:30etatik 12:30etara, Plaza Handian magia tailerrak egingo dira: mago moztarrok, kapa, kape-lak, barita... Jarraian, Eriz magoaren txanda izango da 13:30ak bitartean. 16:30etan magia trikimailuak erakutsiko dira, eta 18:00etatik 19:00etara, Kidam magoa ariko da magia egiten.

Gure berbak

Aditza (13): NOR-NORI-NORK plurala

NOR-NORI-NORK aditzekin jarraituko dogu, objektua pluralekoa eta NORI hirugarren pertsona pluralekoa debenekin. Hona zein diran formarik erabillixenak:

- Neutruak: *Liburu bi erosi **diuedaz** laguneri; liburu bi erosi **diuez** harek laguneri; liburu bi erosi **dioguz** guk; liburu bi erosi **diozuz**; liburu bi erosi **diozuez**; liburu bi erosi **diuez** gurasuak seme-alaberi.*

- Hikakuak (giz.): *Liburu bi erosi **jauedaz** laguneri; hik liburu bi erosi **diuaz** laguneri; liburu bi erosi **jauenzak** harek laguneri; liburu bi erosi **jauaguz** guk; liburu bi erosi **jauenezek** gurasuak seme-alaberi.*

- Hikakuak (emak.): *Liburu bi erosi **jauenadaz** laguneri; hik liburu bi erosi **dioenaz** laguneri; liburu bi erosi **jaoenaz** harek laguneri; liburu bi erosi **jauenaguz** guk; liburu bi erosi **jaoenez** gurasuak seme-alaberi.*

Honetan ere, ikusten dogu kasu batzuetan nahastu egiten dirala 3. pertsona singularreko eta pluralekuak, ez dira-eta *dieguz, diezuz, diezuez* erako aditzak erabiltzen, -e-dunak. Horren orde, *dioguz, diozuz, diozuez* erako singularreko formak erabiltzen dira pluraleko pertsonetarako ere.

D / R alternantzia ere badogu aditz honetan: *diuedaz / diueraz; jauedaz / jaueraz ...*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1964

Mila Osorok laga digu aste honetako erretratu zaharra. 1964. urte inguruan ateratakoa da, Barrutia jatetxe ezagunean, gaur egun Santander banketxea dagoen lekuan, hain zuzen ere. Garai hartan oso ezaguna zen Barrutia jatetxea Elgoibarren, eta ospakizun mordoak egiten ziren bertan: ezkontzak, despedidak, bataioak... Gainera, kanpoko jendea ere asko etortzen zen bertan bazkalzera.

Gogora ditzagun erretratuan azaltzen direnak:

Ezkerretik eskumara: Ines eta Chelo Casado, Jose Mari Gurrutxaga, Isabel Ansola (†), Mari Kruz Alberdi eta Kontxi Oñederra. Barraren muturrean Gloria Canales ikusi daiteke, Barrutia tabernako jabeen alaba.



ESKERTZA



2008ko apirilaren 13an hil zen *Txomin Badiola Salegi* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Herriko
euskaltegien
25. urteurrena

MIKEL PATXO
MARTINEZ TELLERIA

BIKOTE atroa

Euskara Sencilloaren MANIFIESTOA Antzerkia



Apirilak 25,
ostirala

22:00etan

Kultur Etxeko
sotoan

SARRERA DOAN

Euskaltzaindiak
jakinarazten ditu
ikuslearen honen kontsumoa
kaltzagarria izan daitekeela
zura EUSKARAREN
OSASUNERAKO



Euskara saila



Udal euskaltegia

aeK

AEK euskaltegia



PODOLOGIA

Diplomaduna: IÑIGO ARRILLAGA YUDEGO

TRATAMENDUAK:

- ✓ Hanken afekzioen tratamendua.
- ✓ Neurrira egindako plantilak.
- ✓ Hanka diabetikoen zainketa.
- ✓ Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

ORDUTEGIA:

09:30 - 13:30 / 15:30 - 19:30

Tlf.: 943 74 16 45

San Frantzisko kalea, 20 behea

Behar duenarentzat etxez-etxeko zerbitzua



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutzarekin ordaintzeko erraztasunak

Martxoan...

JAIO TAKOAK



Yeraí Tavares Teixeira
Martxoak 1
Adelio-Marcio eta Celia



Markel Almenara Bruno
Martxoak 7
Roberto eta Sonia



Marina Zubiaurre Ortueta
Martxoak 16
Josu eta Ivana



Haritz Rubio Aguirre
Martxoak 26
Agustin eta Ireide



Sara Oyarzabal Zubiaurre
Martxoak 25
Igor eta Leire



Kaiet Lizundia Vazquez
Martxoak 31
Pablo eta Sonia

Bixente Urrusolo Uzuriaga
Martxoak 11
Tomas eta Atsegine

EZKONDUTAKOAK

• Unai Egaña eta Amaia Ovejero • Martxoak 15

HILDAKOAK

Juana Barandiaran Osoro • 73 urte • Martxoak 1
Agustin Sanchez Martin • 66 urte • Martxoak 8
Patxi Igartua Arizmendi • 83 urte • Martxoak 15
Maria Luisa Garate Peña • 58 urte • Martxoak 17
Jesus Iriondo Elorza • 80 urte • Martxoak 22
Maria Arrizabalaga Bastida • 90 urte • Martxoak 22
Ina Garagarza Askorbe • 61 urte • Martxoak 22
Lourdes Aguirre Goiburu • 64 urte • Martxoak 23

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira
943 74 41 12 telefonora edo bidalite-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

IKER LEONARDO

Mendi Eskiko Euskadiko kopako lehiakidea

Mendi Eskiko Euskadiko kopan lehen aldiz parte hartu du. Arkaitz Iruretak, Iñigo Larizek eta Joseba Elustondok lau probetan lehiatu dute, eta esperientzia oso positiboa izan da. Herrian afizio handia dagoela jakinik, Iker Leonardok zaletuak animatu nahi ditu, giro ona egoteaz gain, mendian seguru ibiltzeko aukera ematen duelako.



“Euskadiko kopan parte hartzera animatu nahi ditut zaletuak”

Noiz hasi zinen mendi eskia praktikatzen?

Betidanik gustatu izan zaizkit mendia eta eskia. Trabesiako eskiak biak batzen ditu. Nire kontura orain dela sei urte hasi nintzen.

Damutzen zara lehenago ez lehiatu izateagatik?

Bai, denboraldi honetan asko ikasi dut. Lehenago hasi izan bagina, hobeto joango ginen. Pasa den urtean parte hartu nuen Altí Toyn, baina dortsalik gabe. Kasualitatez hasi nintzen; aurten serioago hartu dut.

Euskadiko kopan A mailan lehiatu zarete. Lehenengo postuetatik gertu ibili zarete?

Ez, lehenengo postuetatik urruti geratu gara. A mailan desnibel handiagoa dago, eta gogorragoa da. Gainera, Euskal Herrian oso maila altua dago. Gu ez gara irabaztera joan, ondo pasatzera baik. Ez diegu denborari erreperatu. Helburua gure maila hobetzea zen.

Lau proba (Cauterets, Altí Toy, Open Vall Fosca eta Andres Regil) egin dira. Nahikoa izan dira?

Bai. Mendi elkarrekin herri proba asko antolatzen dituzte urte guztian, eta nahi izanez gero, beti dago aukera proba batera edo bestera joateko.

Zuek lauok bakarrik parte hartu duzue, hasieratik bukaerara, Euskadiko proban?

Alberto Zelaia parte hartu zuen proba batean, baita Aitor Salaberriak ere. Elgoibarren jende asko dago bere kontura trabesia egiten duena. Jendea animatu nahi dut Euskadiko kopan parte hartzera. Inguru berriak ezagutzeko modu bikaina eta segurua da. Oso giro ona egoten da, eta elkarrekin bazkariak egin ditugu.

Garestia da ekipoa?

Ekipoa baneukan, baina aurrean ibiltzen direnek merkatuko onena dute. Egia esan, material ona edukitzea garrantzitsua da.

Gabonetan Euskal Mendi Federazioko eskiko batzordeak antolatuta ikastaroa jaso zenuten. Zer ikasi zenuten?

Eguraldi txarra egitean zer egin behar den. Azkar ibiltzea komeni da, mendian segundu batetik bestera egoera alda daitekeelako.

Egia da herriko harrobian entrenatu zirela?

Astakeria galanta izan zen. Eski zaharrenak hartu genituen Arkaitzek eta biok. Hasierako zatia oso gogorra izan zen, eta jausi eta urratu batzuk ere izan genituen. Gero leku hobea topatu genuen, eta bira politak irten ziren. Ditzosozko klima aldaketarekin, harrietan eskiatzea izango da etorkizuna.

Haurrez gain helduek ere parte hartuko dute Jose Gurrutxaga krosean

Domekan hainbat proba egingo dira adinaren arabera

Jose Gurrutxaga krosa hainbat berrikuntzekin etorriko da domekan. Elgoibarko eta Mendaroko ikasleek parte hartuko dute urtero bezala, baina aurten hamasei urtetik gorakoek ere izena eman ahal izango dute. Nagusien izenematea Udaletzeko arkupeetan egingo da 10:30ak arte.

Ikastolaren kros honetan, lau proba egingo dira: 10:30etan, 350 metro egingo dituzte 2000an eta 2001ean jaiotako haurrek; 11:00etan, 1998an eta 1999an jaiotako gaztetxoek 630 metro antxintxika egin ahal izango dute; 11:30etan, 1996 eta 1997an jaiotako antxintxikarien ueña izango da; azkenik, 12:00etan, 1991. urtetik aurrerako helduek hiru buelta emango dizkiote ibilbideari. Horrez gain, 1992-1995. urteko neska-mutilek, berriz, buelta bat (1.470 metro) egin beharko dute, eta helduenek, hiru buelta (4.410 metro).



laz 523 ikaslek hartu zuten parte

Pasa den urtean, Plaza Handiaren bueltan ikusle ugari inguratu ziren. Egun eguzkitsua hartan, 523 korrikalari irten ziren kalera. Guztira hamalau lasterketa jokatu ziren. Aurten, nagusienek ere izango dute euren txanda.



Lerun Xake taldea mailaz igoko da

Igoera faseko partida baten faltan, Lerun xake taldeak lortu du bere helburua, mailaz igotzea. Hogei punturekin lehen postuan dago. Bigarren Eibar dago, hamabost punturekin. Matematikoki lehen postuan bukatuko dute, biharko partidaren lau puntu baitaude jokoan. Multzuan azkeneko postuan dagoen Fortuna E izango dute hurrengo partidako aurkari.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi **0** – Portugalete **0**
 Elgoibar **4** – Amara berri **0** (erreg.)
 Urola **1** – Elgoibar **2** (jubenila)
 Elgoibar **2** – Oiartzun **1** (kadeteak)
 Elgoibar **0** – Touring **1** (infantil 1)
 Bergara **1** – Elgoibar **0** (infantil txiki)
 Basconia **3** – Elgoibar **2** (Neskak)

ESKU PILOTA

Elgoibar **7** – Arrasate **22** (kadeteak)
 Bergara **22** – Elgoibar **4** (jubenilak)
 Sorluze **22** – Elgoibar **11** (senior)

ARETO FUTBOLA

Euskalduna **8** – Kenci **1** (euskal liga)
 Euskalduna **4** – Elgoibar **2** (jubenilak)

ESKUBALOIA

Tecnifuelle **24** – Askartza **21** (sen. neska)
 Leizaran **22** – Pnemax **47** (jub. mut.)
 Tecnomeca **22** – Ereintza **35** (kad. mut.)
 IMH Elgoibar **36** – Aloña Mendi **18** (kad. neskak)
 Cometel **12** – Aloña mendi **20** (jub. neska)
 Zarautz **18** – Aterpe **21** (infantil neskak)
 Pulpo **16** – Caldereria **6** (inf. neskak)
 Txariduna **21** – Pilar Bidasoa **20** (inf. mutilak)
 C. Astigarraga **23** – Leizaran **12** (inf. neskak)

AGENDA

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 19

11:00 Aterpe – Zarautz (inf. neskak)
 12:00 Caldereria – Zarautz (inf. neskak)
 17:30 Tecnifuelle – Zarautz K.E. (sen. mutilak)

Domeka, 20

11:00 IMH Elgoibar – Bera Bera (kad. neskak)
 12:30 Cometel – Bera Bera

ESKU PILOTA

Barxakua, 18

22:00 Elgoibar – Arrasate (jubenilak)
 22:00 Elgoibar – Arrasate (nagusiak)

II. URTEURRENA



2006ko apirilaren 20ean hil zen, 73 urte zituela, **Manuel Kapanaga Totorikaguena** jaunaren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, igandean, apirilak 20, eguerdiko 12:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



LANA

ESKAERA

- Neska, orduka lan egiteko prest. ☎ **639 984 262**
- Mutila, lan egiteko prest. ☎ **639 984 262 (Breidy)**
- Neska, lan egiteko prest. Sukaldean esperientzia. ☎ **656 781 742** ☎ **688 682 398**
- Neska, orduka lan egiteko prest: eskailerak, tabernak, etxeak garbitu... ☎ **697 702 158**
- Interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ **610 632 782**
- Garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **632 090 180**
- Orduka lan egiteko prest. ☎ **654 610 231**
- Mutila, pintore aprendizak izateko edo igeltsero lan egiteko prest. ☎ **671 439 926**
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak zaindu, garbiketa lanak. ☎ **648 210 838**
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak zaindu, garbiketa lanak. ☎ **616 230 814**
- Neska, edozein lan egiteko prest. Egun osoa ala erdia. ☎ **618 177 283**
- Ingeleseko partikularrak ematen dira: ahozkoa eta Business English. ☎ **696 964 069**
- Ingeleseko partikularra ematen zaie helduei. Maila guztiak. ☎ **606 733 850**
- Emakumea, lanerako prest: nagusiak zein umeak zaindu, garbiketa lanak... ☎ **696 284 351**
- Partikularra ematen da Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. ☎ **943 53 10 54**
- Mutil arduratsua, zerbitzari lanerarako prest. ☎ **626 590 632**
- Emakumea, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak ordu batzuetan zaintzeko prest. Josteko lanak ere egiten ditut. ☎ **943 74 22 01 / 652 715 908**
- Neska, sukaldari, zerbitzari... lanerarako prest ☎ **649 694 790**
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak, umeak zaindu... Goizez. ☎ **699 690 190**
- Neska gaztea, edozein lan egiteko prest. ☎ **677 300 105**

- Frantses partikularrak ematen dira. ☎ **664 126 273**
- Bi irakasle, partikularrak emateko prest, LH, DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. ☎ **653 717 972**

ESKAITZA

- Elgoibarko arandegirako banatzaileria behar da. Gida baimena eskatzen da. ☎ **607 468 014**
- Zerbitzaria behar da esperientziarekin. Kontratua eskainiko zaio. ☎ **943 74 87 78**
- Sukaldari laguntzailea eta jantoki eta barrarako zerbitzaria behar dira. ☎ **688 623 668 / 688 623 667**
- Zerbitzaria behar da. ☎ **943 12 12 62**
- Hezkuntza Berezia egin duen edo egiten ari den laguna behar da umea zaintzeko uztaileko goizetan. ☎ **615 787 118**
- Mutila behar da igeltseritza lanerarako. ☎ **605 705 204**
- Neska arduratsua behar da umeak zaintzeko. ☎ **943 74 29 66**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Etxe salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berria, eguzkitsua. Ganbara eta balkoi handia. Altxariekin salgai. ☎ **628 115 677**
- Urasandin pisua salgai. Hiru logela bi-koitz, bainugela, sukalde eta egongela. Horma-armairua, balkoia eta galeria (estaltitako balkoia) ere badu. Oso eguzkitsua. Komuna eta bainugela. ☎ **626 371 369**

GARAJEAK

- Garaje itxia salgai pista beltzean. ☎ **943 74 23 06**
- Pista beltzean garaje marraduna alokairuan. ☎ **665 748 781**
- San Roke kalean, Aterpe azpian, garajea alokairuan. ☎ **943 741 436**
- 16 m² garaje itxia alokairuan. San Roke kaleko 10ean, kiroldegia atzean. ☎ **943 740 118**

MOTORRA


- Renault Traffic ekipatua salgai. Bidaiatzeko bost plaza (lau lo egiteko), sukalde gutuz ekipatua. Berogailu estatikoa eta bira ematen duen janlekua, dutxa, toldoa eta bizikletak eramateko lekua. 76.000 kilometro. 2003koa. ☎ **658 710 899 / 685 725 840**
- Seat Leon 1.9 salgai. 105 zaldi (kit aerodinamikoarekin). 15.000 kilometro. ☎ **647 626 693**
- Opel Vectra salgai. Ondo zainduta. ☎ **656 793 967**
- Opel Monterrey 4x4 salgai. Hiru ate atzean, engantxea erremolkerako. 3.100 diesel motorra oso egoera onean. Baserrirako edo ehiztariarentzat aproposa. ☎ **646 711 421**

BESTELAKOAK

- Ametsa kafetegia alokairuan edo salgai, Elgoibarren. ☎ **686 608 224**
- Baratza konpartitu nahi dut. Alde zaharretik gertu dago. Ura du, simaurra eta lan egiteko erremintak. ☎ **655 723 678 / 943 74 39 19**
- Salgai AMC izena duten sukaldeko bateria edo lapikoak. Pieza solteak ere bai. ☎ **639 390 808**

ABISUAK

- Gizezko erlojua topatu dut. Hilaren 28an, arratsaldean, Erretxindi kalean. ☎ **943 74 16 64**
- Nissan autoa giltzak topatu ditut. Hirukutzetan. ☎ **670 039 572**
- Antiojoak galdu dira martxoaren 4an geltoki bidean. Eskertuko da. ☎ **943 74 13 26**
- Altxariak, etxetresna elektrikoak, oherako erropa, kortinak eta alfombra handi eta txikiak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Mutil batek PSPa galdu du Madalako Eroskitik Gaztelekurako bidean. Eskertuko da. ☎ **656 766 563 / 688 663 032**



BEKAK

BRITAINIA HANDIA

La Caixa Fundazioa. Lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzako 20 beka, Britainia Handiko unibertsitate eta goi-mailako irakas-kuntza-zentroetan graduondoko ikasketak egiteko. Epea: ekainaren 13a.

EKINTZAK

GAZTE OPORRALDIK

Gipuzkoako Foru Aldundia. 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzat antolatutako programa. Plazak zozketa bidez banatuko dira maiatzaren 8an. Izena emateko epea: apirilaren 17tik 25era Gazte Oporraldien bulegoan (Gaztegunea. Anoeta pasealekua 28) edo Gazte Informazioko Bulegoetan.

LANA

IRAKASLE-IKERTZAILEAK

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzietako Fakultateak unibertsitate irakasle-ikertzaileak behar ditu hainbat ezagutza arlotan. Epea: apirilak 25a.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: gib@elgoibar.org
☎ 943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Astelehenetik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.

OHARRA: Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.

Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean

ADMINISTRARIA BEHAR DA

ESKATZEN DA:

- ◀ Kontabilitatea.
- ◀ Nominak eta zergak (BEZ, PFEZ, Gizarte Segurantzza).
- ◀ Internet eta informatika (Conta Plus, Excel, Acces, ...)
- ◀ Elgoibarren edo inguruan bizitzea baloratuko da.

ESKAITZEN DA:

- ◀ 20 orduko lan-dedikazioa.
- ◀ Urtea amaitu arteko kontratua (luzatzeko aukerarekin).

Curriculumak entregatzeko: ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea
Ubitarte 4, behea - 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 74 16 26 (Amaia/Imanol)

E-posta: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

Azken eguna: Apirilak 25.



• Zorionak, **Markel**, apirilaren 20an zortzi urte egingo dituzulako. Etxekoan partez. Aupa txapeldun!



• Zorionak, **Aner**, hilaren 15ean sei urte egin zenituelako. Aita eta familiakoan partez.



• Zorionak, **Kimetz**, etxekoan eta bereziki Aritzen partez.



• Zorionak, **Altana**, hiru urte egin zenituelako. Aitonamonen, osaba-izeben eta lkerren partez.



• Zorionak, **Nere**, etzi urteko bat egingo duzulako. Bereziki Ane, Aritz eta Maialenen partez.



• Zorionak, **Issbel**, gaur hamaika urte egingo dituzu-eta. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Iraitz**, hilaren 12an lau urte egin zenituelako. Familiakoan partez muxu asko.



• Zorionak, **Unai**, zorionak zuri, zorionak beti. Bi urte egin dituzu. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Narrea**, igandean bost urte egingo dituzulako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Santos**, apirilaren 16an 85 urte egin zenituen-eta. Familia guztiaren partez.




• Zorionak, **Markel**, gaur hiru urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Eritz**, lau urte egin dituzulako. Ondo pasa potxolo. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **alproja**, lau urte egingo dituzulako. Pitxonzita, Sorgin eta familiakoan partez.



• Zorionak, **Iker**, bihar bi urte egingo dituzulako. Ama eta aitaren partez.



• Zorionak, **Nagore**, 22an bederatzita urte egingo dituzulako. Familiaren partez.



• Zorionak, **Maddi**, potxola, asteartean bi urte egingo dituzulako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Eider**, etzi 3+3 urte egingo dituzulako. Ondo pasa zure egunean.



• Zorionak, **Lucia eta Jon**, zuen hirugarren urtebetetzean. Familia guztiaren partez.

LEKUALDATZEA!!

ETXEBERRIA ARRILLAGA BOTIKA

Helbide berria: Santa Ana,7 - Tel.: 943 74 01 40

ETXEETARA PARTIKETA

AMAREN EGUNEAN EGIZU OPARIRIK ONENA!!!

Maiatzak 2,3 eta 4 zabaldua!

943 740 189 / 688 631 307

Merkatu plazan!

PAGOÀ
L. OLABARRA & L. OLABARRITA

BARREN astekaria

BASERRIETAN BANATZEKO PERTSONA BEHAR DA

Autoa beharrezkoa

Interesatuak 943 74 41 12 (Ainhoa) telefonora deitu
edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzi

OKINDEGIA

20 igandea **BOLINTXO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 18 Fernandez
- 19 Yudego
- 20 Yudego
- 21 Zabaleta
- 22 Etxeberria (*Errosario*)
- 23 Ibañez
- 24 Bidasolo
- 25 Etxeberria (*Santa Ana*)

Escala

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik www.elgoiBARREN.neten

18 barixakua

17:30 Kiribilka programa

Bitik sei urtera arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako. Plaza Handian.

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

22:15 Kontzertua

Mikel Urdangarinek *Anek idatzi dit zutaz* diskoa aurkeztuko du.

Herriko Antzokian.

19 zapatua

10:00 Elgoibarko Herria instrumentu taldeen lehiaketa

Musika Eskolako auditorioan.

Antolatzailea: Inazio Bereziartua musika eta dantza eskola.

11:30 Magia eguna

Atxutxiamaikak antolatuta, Eriz eta Kidam magoen saioa, magia tailerrak...

Plaza Handian (euria bada, Ikastolako frontoian).

20 domeka

10:15 Udal Musika Bandaren kalejira

Kaleetan zehar.

10:15 Udal Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian

- Torre del oro (pasodoblea: R. Dorado)
- Pique Dame (obertura: Fr. Von Suppé)
- Frenesi (melodikoa: Naohiro Iwai)
- El bateo (fantasia: F. Chueca)
- Beatles collection (Lennon/Mc Cartney)
- El puente sobre el rio Kwai (K.Alford)

10:30 Jose Gurrutxaga haur krosa

Ikastolak antolatuta, herriko umeek hartuko dute parte. Irteera: Plaza Handian..

23 eguaztena

21:30 Mendi emanaldia

Anex Retanak "Mendiko eskia Silverettan" hitzaldia eskainiko du. Musika Eskolako auditorioan.

25 barixakua

17:30 Kiribilka programa

Bitik sei urtera arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako. Plaza Handian.

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

19:00 Erakusketa

Fernando Garcia Rubiaren akrilikoak eta Angel Gil Cuevasen eskultura erregogorak. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

22:00 Antzerkia

Euskera sencilloaren manifestoa, Ez dok hiru bikotearen eskutik. Kultur Etxeko sotoan.



«Mr. Magorium y su tienda magica» (umeentzako)

20, domeka: 16:30

«Skinhead attitude» (Paradisu zinema)

20, domeka: 17:30

«This is England film» (Paradisu zinema)

20, domeka: 19:00

«Pozos de ambicion»

19, zapatua: 19:00-22:15

20, domeka: 19:00

21, astelehena: 21:30

«Japon»

(Zine-kluba)

24, eguena: 21:30

«Candida»

(Bideo forum-a)

25, barixakua: 22:00

«Pozos de ambicion»

Zuzendaria: Paul Thomas Anderson.

Aktoreak: Daniel Day-Lewis, Paul Dano.

Texasko petrolio bilatzaile baten familia, zikoizkeria, erlijioa eta petrolio lotzen dituen istorio honek. XX. mendearen hasieran girotuta dago drama hau, petrolioaren negozioren aldia. Magnatea petrolio hobi batez jabetzen saiatuko da, Eli Sunday predikatzaileari aurre eginez. 1927an Upton Sinclair-ek idatzitako *Petróleo* eleberrian oinarritutako filma.

Gure gomendioa

Mikel Urdangarin

Gaur, barixakua, 22:15ean

Mikel Urdangarinnek *Anek idatzi dit zutaz* diskoa aurkeztuko du gaur gauean, Herriko Antzokian. Lan horretan Maia, Iturriaga, Aurrekoetxea eta Elortzaren letrak dituzten abestiak ere badaude.



GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 18

Ordenagailuetan ibiltzea
17:00

ZAPATUA 19

Sukalde Txokoa
Makilaje ikastaroa
17:00

MARTITZENA 22

Sukalde txokoa
18:30

EGUAZTENA 23

Liburuaren eguna: irakurketa ordua

EGUENA 24

Sukalde txokoa 18:30



LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 18

Antzerkia, Kixka taldearekin
18:00

ASTELEHENA 21

Jolas libreak
16:30

MARTITZENA 22


Informatika tailerra, argazkien tratamendua
17:00

EGUAZTENA 23

Informatika: album elektronikoa
18:00

EGUENA 24

Informatika: oporrak sarean
18:00



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

**NEURE BURUA NIK NEUK
GIDATZEKO PREST!**

WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

2008
Berrikuntza artea
euskadi
año de la innovación

grafitia

PIROPO LEHIAKETA

Gaztelean piropo lehiaketa egin dute. Hamahiru eta hamazortzi urte bitarteko gazteak erromantiko jarri dira, eta hogeita bost piropo aurkeztu dituzte lehiaketara. Irabazlea, lotsatuta edo, ez da saria jasotzera pasa. Beraz, ez dakigu nor izan den piropo irabazlearen egilea. BARRENeke horma honetan jaso ditugu piroporik orijinalenak.



"Zure ezpain gorriek margotu dezatela muxu bat nireetan"

"Zure izpiek, txokolatea bezala urtzen naut"

"Hi bihorra, etorri hadi kona!"

"Horiek bai kurbak eta ez San Migel errepedekoak"

"Kabiarra baino hobea zaude"

"Berriz ere zure ileak aurkitu nahi ditut dutxan"

"Bihotz bat ikusten dudanean, zutaz gogoratzen naiz"

"Hori bai delantera eta ez ferrariarena!"

"Goxokia izan nahi nuke, zure ahoan urtzeko"

"Zutaz maitemintzea pekatua balitz, infernuan egon beharko nintzateke"

"Zure ipurdia, ogia bezain biguna da"

Bidali zure oihua, bertsoa, aldarrikapena, marrazkia edo nahi duzuna, eta BARRENeke horman jarriko dugu. Helbidea: barren@elgoibarkoizarra.com

Grafitian parte hartzeko izen-abizenak eta telefonoa eman behar dizuzue, derrigorrez. Zure izena bistaratu ala ez, berriz, aukeran lagako dizugu.

○ ○ ○ Hamarkada batez,
Bartzelona eta Elgoibar artean,
diseinu grafikoaren munduan
lanean ibili ondoren...

KLIKart

DISEINUGRAFIKOA ● ● ●

○ ○ ○ ○

● ● ● Tlf.: 663 90 73 82

Ainara Burgaña

*Ideiaaren sormenetik hasi
eta inprimategitik atera
bitarteko lan-prozesu
guztiaren ardura
KLIKart-en esku!*

diseinu faktoria berria elgoibarren

- logotipoak
- papeleria: tarjetak, sobreak, karpetak,...
- irudi korporatiboak
- foileto eta katalogoak
- diseinu eta maketazio editoriala:
liburuak, aldizkariak, ...
- kartelak, rotuloak, feriak,...
- packaging
- publizitatea orokorrean

KLIKart

DISEINUGRAFIKOA ● ● ●

○ ○ ○ ○

Pol. Ind. Sigma · Xixilion 2 · 2. solairua · 14. lokala
Tlf.: 663 90 73 82 · klikartsl@hotmail.com
Apdo. 161 · 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

ENJOY SUMMER

jolasen bitartez eta dibertitzen zaren bitartean,
ikasi Ingelesa ELGOIBARREN

- 5 urtetik aurrera, ekainaren 30etik uztailaren 24ra bitartean, goizeko 10etatik 13etara.
- Ingelesa modu naturalean ikasi aire librean, jokoan, abestien, ipuinen eta eskulanean bitartez.

2008/2009 IHASTURTERAKO MATRIKULA IREKIA

HAURRAK ETA GAZTEAK INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA

- HAURRAK 4 urtetik aurrera
- GAZTEAK 12 urtetik aurrera
- Hizkuntzan erabat barneratzekoak, %100 ingelesez, frantsesez edo alemanez.
- Cambridge Azterketen prestakuntza: KET, PET eta FIRST CERTIFICATE.

ILS

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegiak

943 744 040

www.ils.es

IMHn gaude



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

